

Prentsa oharra Nota de prensa



LARUNBATEAN IZTUETAKO BIDE BERRIA ZABALDUKO DA TRENBIDEAREN AZPITIK

Datorren larunbatean Iztuetako bide berria ibilgailuentzat irekiko da, eta obrak azken txanpari ekingo diote.

Duñike Agirrezabalaga Hiri Proiektuetako zinegotziak adierazi duenez, datozen egunotan errepide berria asfaltatuko da trenbidearen azpian, eta seinale horizontalak margotuko dira. Hori dela eta, larunbatean, lehen orduan, bide hori irekiko da trafikorako, eta Iztueta kaletik barrena, zubibide zaharra eraisteko lanetan, martxan egon den behin-behineko bidea kenduko da.

Bihar, osteguna, eta apirilaren 8an, ostirala, bide berria asfaltatuko da behin-behinean, errodadura-geruza egin gabe, baina larunbatetik aurrera ibilgailuak ibiltzeko aukera emango du, eta apirilaren 9ko (larunbata) 08: 00etatik aurrera zirkulatu ahal izango dute.

Konexioa behin-behinekoa izango da, zirkulaziorako bi errei baino ez baititu izango, noranzko bakoitzean bat. Orduetik aurrera, inguruaren urbanizazioa hobetzeko fasea hasiko da, batez ere Iztueta, Zuhazti, Egiako galtzada, Aldakoeneako bidegurutzea, Mandasko Dukearen pasealekuaren amaiera eta Justizia Jauregiaren ingurua.

Obrak amaitu aurretik, kaleen urbanizazioa saneatzeko eta kotan jartzeko jarduketak ere egingo dira, Mandasko Dukearen biribilgune berriarekin lotzeko. Jarduketa horietarako, trafikoa eten beharko da, eta, ondorioz, Egiako galtzada eta Aldakoeneako zirkulazioa egun batzuetan desbideratu beharko da, apirilaren 11n asfaltatzea aurreikusita baitago.

Horrela, egun batzuetan bi norabideetako trafikoak Misericordia kaletik egin beharko dira.

Apirilaren 12tik, asteartea, Iztueta, Iparragirre eta Tomás Gros kaleak egoiliarren trafikorako eta garajeetarako sarbiderako bakarrik izango dira. Iztueta kalearen eta Zuhazti parkearen arteko lotura bertan behera geratuko da, trafikoak banatzeko biribilgune berriaren azken fasea hasiko baita Mandasko Dukearen hasieran. Aldakoeneatik datozen autoak bide berrira gehitu ahal izango dira, baina ez alderantziz, hau da, Aldakoenearako bidetik.